



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2021eko abenduaren 8ko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2021eko abenduaren zortzian, zortziak eta erditan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

Hor zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

Barkatuak zirenak : CASIRIAIN Elena, LEKUMBERRY Xantxo
Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie

Deialdiaren eguna : 2021eko abenduaren 3a
Afitxatze eguna : 2021eko abenduaren 3a

5.ERABAKIA ZERBITZUETAN EUSKARAREN GARATZEKO HOBETZE KONTRATUAREN ONARTZEA

Nomenklatura : 9.1

Auzapez Jaunak biltzarrari presentatzen du herritarrei eskaini zerbitzuetan, euskararen garatzeko hobetze kontratuaren proiektua, Euskal Hirigune Elkargoak proposaturik.

Zehazten du 2022ko izenpetu kontratu proiektuak, helburutzat duela herriko langileentzat, formakuntza plano baten egitea, lan dokumentoen itzulpenendako diru-zama baten atxikitzea eta ekintza zehatzen proposatzea euskaraz, ekintza programa baten barne.

Auzapezaren erranak entzunik eta elgarrekin eztabaidaturik, Herriko Kontseiluak,

- ONARTZEN DU, herriko zerbitzuetan euskararen garatzearendako 2022-ko hobekuntza kontratuaren proiektua,

- Auzapez Jauna AHALBIDETZEN DU aipatu kontratuaren izenpetzera, 2022ko urtarrilaren 1ean hasteko gisan, baita horri loturik, behar diren urrats guzien eramaitera, 2022-ko herriko aurrekonduan beharrezkoak diren kredituak aurreikusiak izanen direla zehaztuz.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balizko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gaineko egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2021eko abenduaren 8an
Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2021/12/21ean publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2021/12/21ean.